EDIKTUA, 2008ko urtarrilaren 28koa, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariarena, José Manuel Sierra Sierra jaunari, Bilboko 7. zerrendako 230/1995 folioan BI-3-230-95 zenbakiarekin matrikulaturiko bere jabetzako Barlovento Primero ontzia abandonatzeagatik espedientea abiarazi dela jakinarazteko dena. Espedientea Interes Orokorreko Portuetako Zerbitzuen Ekonomia eta Prestazioen Araubidearen azaroaren 26ko 48/2003 Legearen xedapen gehigarrietan hemezortzigarrenean ezarritakoari jarraituz izapidetu da. 3194

EDICTO de 28 de enero de 2008, del Director de Puertos y Asuntos Marítimos, por el que se notifica a D. José Manuel Sierra Sierra el inicio de expediente de abandono de la embarcación denominada «Barlovento Primero», con Folio 230/1995, Lista 7.ª de Bilbao y matrícula 7.ª BI-3-230-95, de su propiedad, tramitado conforme a lo establecido en la Disposición Adicional Decimoctava de la Ley 48/2003, de 26 de noviembre, de Régimen Económico y de Prestación de Servicios de los Puertos de Interés General. 3194

**LAN ETA GIZARTE GAIETAKO MINISTERIOA**

EDIKTUA, aldi baterako ezintasunaren prestazioari dagokionez, ugazabaren betebeharra bete ez dela jakinaraztekoa. 3195

**MINISTERIO DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES**

EDICTO de notificación relativo al incumplimiento de la obligación patronal respecto de la prestación por incapacidad temporal. 3195

## Pribatuen Iragarkiak

**BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A.**

IRAGARKIA, bidaia-agentzia ofizialari buruzko kontratuaren esleipenari buruzkoa. 3195

**IES ESKURTZE BHI**

IRAGARKIA, Lanbide Heziketa II titulu bat galdu dela argitara ematen duena. 3197

## Anuncios Particulares

**BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A.**

ANUNCIO relativo a la adjudicación del contrato sobre la agencia oficial de viajes. 3195

**IES ESKURTZE BHI**

ANUNCIO por el que se hace público el extravío de un título de Formación Profesional II. 3197

# Xedapen Orokorrak

## KULTURA SAILA

### 974

27/2008 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolaketa- eta funtzionamendu-araudia aldatu eta bateratzen duena.

Azaroaren 7ko 219/2000 Dekretuak Kulturaren Euskal Kontseilua sortu eta arautzen du. Kontseilu hori Eusko Jaurlaritzan kultura alorrean eskumena duen sailari atxikia dago, hau da, Kultura Sailari, baina ez dago bere egitura hierarkikoan txertatua. Kulturaren Euskal Kontseilua kulturaren eremuan partaidetza, lankidetza eta aholkularitzako goi mailako kide anitzeko organo modura sortzen da.

Dekretu horrek hainbat aldaketa izan ditu. Horien helburua: Kulturaren Euskal Plana (2004) onartu eta gauzatu zenez geroztik garatzen ari diren kultura-egitura berriei egokitzea bere funtzionamendu araudia.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 974

DECRETO 27/2008, de 5 de febrero, de modificación y refundición de la normativa de organización y funcionamiento del Consejo Vasco de la Cultura.

El Decreto 219/2000, de 7 de noviembre, crea y regula el Consejo Vasco de la Cultura y se adscribe el mismo al Departamento competente en materia de cultura del Gobierno Vasco, el Departamento de Cultura, sin que ello conlleve su integración en la estructura jerárquica del mismo. El Consejo Vasco de la Cultura se crea como órgano colegiado superior de participación, cooperación y asesoramiento en el ámbito de la cultura.

Dicho Decreto ha sido objeto de modificaciones dirigidas a adecuar su régimen de funcionamiento a las nuevas formas de política cultural que se están desarrollando desde la aprobación y posterior desarrollo del Plan Vasco de la Cultura (2004).

Aldaketa gehiago egingo zaizkio dekretu honen bidez, besteak beste Batzorde Osoko kide berriak izendatuz. Eguneratzeari eta egokitzapen teknikoari buruzkoak dira gainerako aldaketak; funtzionamendua hobetze aldera egindakoak. Horrek aldaketa berri bat ekarriko lukeenez, zeina aldaketa dekretu batez onartu beharko litzatekeen, kide anitzeko organo horren antolaketa- eta funtzionamendu-esparru orokorra osatzen duten xedapen juridikoen barreiaketa nabarmena eragingo litzateke. Dekretu honen bidez, hortaz, erregimen hori atzera ere aldatzea eta horren xedapen arautzaileak -Dekretuz onartutakoak- biltzea bidezkotzat jotzen da.

Horrenbestez, Kultura sailburuak proposatu, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren oniritzia jaso eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko otsailaren 5ean egindako bileran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluaren izaera eta atxikipena.

1.– Kulturaren Euskal Kontseilua kulturaren eremuan partaidetza, lankidetza eta aholkularitzako goi mailako kide anitzeko organoa da. Dekretu honetan aitortzen zaizkion edo aurrerantzean aitor dakizkion beste zeregin batzuez gain, bere funtsezko zeregina Kulturaren Euskal Plana doitu, garatu eta ebaluatzea izango da. Plan horretan, beste gauza batzuen artean, jarduteko zeharkako jomugak jasoko dira, baita kultur ondarearen, museoen, artxibategien, liburu eta liburutegien, ikus-entzunezkoen, musikaren, arte eszenikoen eta arte plastikoen arloetan sektorekako garapenak egitea ere.

2.– Kulturaren Euskal Kontseilua Kultura Sailari atxikita dago, bere egitura hierarkikoan txertatu barik.

*Bigarren artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluaren organoak.

Honako hauek dira Kulturaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendurako kide anitzeko organoak:

– Batzorde Osoa.
– Erakunde-arteko Batzordea.
– Batzorde Bereziak.

*Hirugarren artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoaren osaera.

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoaren osaera:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, zeina lehendakaria izango baita.

b) Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

Nuevamente se ha planteado la oportunidad de incorporar modificaciones, entre las cuáles ha de subrayarse la incorporación de nuevos miembros en la Composición del Pleno. En cuanto a las demás, suponen una labor de actualización y ajuste técnico para la mejora de su funcionamiento. Habida cuenta que, se estaría ante una nueva modificación, la aprobación de la misma mediante un nuevo Decreto de modificación, entrañaría una considerable dispersión de las disposiciones jurídicas que conforman el marco general de organización y funcionamiento de dicho órgano colegiado. En consecuencia, se considera oportuno proceder mediante el presente a incorporar la nueva modificación a dicho régimen, y a refundir el conjunto de disposiciones reguladoras del mismo, aprobadas por Decreto.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de febrero de 2008,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Naturaleza y adscripción del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– El Consejo Vasco de la Cultura es el órgano colegiado superior de participación, cooperación y asesoramiento en el ámbito de la Cultura. Sin perjuicio de cuantos otros se le atribuyen por éste o se le puedan atribuir, su cometido esencial será adecuar, desarrollar y evaluar el Plan Vasco de la Cultura, en el que se contemplan, entre otros aspectos, líneas transversales de actuación, así como desarrollos sectoriales en el campo del patrimonio cultural, museos, archivos, libro y bibliotecas, audiovisual, música, artes escénicas y artes plásticas.

2.– El Consejo Vasco de la Cultura está adscrito al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, sin integrarse en su estructura jerárquica.

*Artículo segundo.–* Órganos del Consejo Vasco de la Cultura.

Los órganos colegiados de funcionamiento del Consejo Vasco de la Cultura son:

– el Pleno.
– la Comisión Interinstitucional.
– las Comisiones Especiales.

*Artículo tercero.–* Composición del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– El Pleno del Consejo Vasco de la Cultura tiene la siguiente composición:

a) El/la Consejero/a de Cultura del Gobierno Vasco, que ostentará su presidencia.

b) El/la Viceconsejero/a de Cultura, Juventud y Deporte del Gobierno Vasco.

c) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria.

e) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria.

f) Euskal Irrati Telebista erakundeko zuzendari nagusia edo berak ordezkari izendatutako goi-kargududuna.

g) Eusko Jaurlaritzako ondoko sailetako ordezkari bana, gutxienez zuzendari kargua dutenak: Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Lehendakariordetza eta Lehendakaritza.

h) Lurralde Historikoetako Foru Aldundietan Kultura arloaren arduradun diren foru-diputatuak, euren erakundearen ordezkaritzan, edo eurek izendatutako ordezkariak; ordezkariok gutxienez zuzendari kargua izango dute.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetako Kultura arloaren arduradun diren zinegotziak.

j) Euskadiko udalen artean ordezkaritzarik adierazgarriena duen udal-elkartearen ordezkaria.

k) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatutako hogeita hamabi pertsona, gehienez ere. Kide horiek euskal kulturaren eremu eta erakundeek pertsona ospetsuen artean proposatutakoak izango dira euren ordezkari izateko.

l) Eusko Legebiltzarraren proposamenez izendatutako bost kide.

m) Kulturaren Euskal Kontseiluaren idazkaria. Batzorde Osoaren bileretan idazkari arituko da. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa emateko.

2.– Batzar Osoak pertsona espezializatuei dei egin diezaieke bere bileretara, hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe, hain zuzen ere, bertan aztertuko diren gaietan aholkua eman dezaten.

***Laugarren artikulua.***– Bilerak, eraketa eta erabakia hartzea.

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoa gutxienez urtean bitan bilduko da. Bilduko da, halaber, bere Lehendakaritzak egoki irizten dioenean eta kideen gehiengoak idatziz hala eskatutakoan.

2.– Kulturaren Euskal Kontseilurako deiak, dela Batzorde Osorako dela batzordeetarako, bakoitzaren Lehendakaritzak egingo ditu bilera izan baino gutxienez egutegiko zazpi egun aurretik. Deialdian bileraren gaizerrenda, eguna, tokia eta ordua jasoko dira.

3.– Ez dute aipatutako denbora-baldintza hori bete beharrik izango lehendakaritzaren ustez presazko egoera dela medio deitutako bilerek.

c) El/la Viceconsejero/a de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

d) El /la Directora/a de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

e) El/la Director/a de Promoción de la Cultura del Gobierno Vasco.

f) El/la Directora/a General de EITB o la persona con la condición de alto cargo en la que delegue.

g) Una persona con rango mínimo de Director/ a en representación de cada uno de los siguientes Departamentos del Gobierno Vasco: Industria, Comercio y Turismo; Educación, Universidades e Investigación; Hacienda y Administración Pública, Vicepresidencia y Presidencia.

h) Los/as Diputados/as Forales responsables del área de cultura de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, en representación de su respectiva corporación, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director/a.

i) Los/as Concejales/as responsables del área de Cultura de las capitales de los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca.

j) Un/a representante de la asociación de municipios más representativa de los Municipios de Euskadi.

k) Hasta treinta y dos personas designadas por el/la titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en representación de los distintos sectores y organismos de la cultura vasca, a propuesta de los mismos, y entre personas de reconocido prestigio.

l) Cinco vocales nombrados a propuesta del Parlamento Vasco.

m) El/la Secretario/a del Consejo Vasco de la Cultura, que actuará como tal, con voz y sin voto, en las reuniones del Pleno.

2.– El Pleno podrá recabar la participación en sus sesiones, con voz pero sin voto, de personas especializadas en los temas que fueran objeto de tratamiento en las mismas.

***Artículo cuarto.***– Reuniones, constitución y adopción de acuerdos.

1.– El Consejo Vasco de la Cultura se reunirá en Pleno, por lo menos, dos veces al año. También podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que lo considere oportuno y a petición por escrito de la mayoría de sus miembros.

2.– Las convocatorias del Consejo Vasco de la Cultura, ya sea en Pleno o en Comisiones, serán realizadas por orden de la Presidencia respectiva con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijarse el orden de asuntos, el día, lugar y hora de celebración de la sesión.

3.– Quedarán dispensadas de dicho requisito de antelación mínima aquellas sesiones que a juicio de la presidencia revistan urgencia.

4.– Era horretako bilerak balio osoz garatu daitezen, bilera-hasieran bileraren lehen puntua izango da organoaren kideen gehiengoak bileraren presazko izaera berrestea.

5.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoko edo Erakunde-arteko Batzordeko edozein kidek proposatu ahal izango dio dagokion Lehendakaritzari gaizerrendan punturen bat sartzea. Horretarako, bi baldintza bete beharko ditu: bilera baino 48 ordu aurretik aurkeztea proposamena eta proposamenarekin batera proposamena justifikatzen duen txosten laburra aurkeztea.

6.– Batzorde Osoa balio osoz eratuko da lehen deialdian bere kideetariko erdiak eta bat gehiago bertaratzen direnean. Behar den besteko quorum-ik ez balego, bigarren deialdia eginez eratuko litzateke; kasu honetan lehen deialditik ordu erdira egingo da, eta nahikoa izango da kideen herena bertaratzea.

7.– Bilerak balio osoz egiteko ezinbestekoa izango da beti lehendakaria eta idazkaria edo euron ordezkoak bileretan egotea.

8.– Txostenak, gomendioak eta gainontzeko testuak, Batzorde Osoaren edo, hala dagokionean, Erakunde-arteko Batzordearen kideen gehiengoak erabaki beharko ditu.

9.– Botaziora jo beharra izanez gero, beharrezkoa izango da gehiengo soila lortzea, berdinketa Lehendakaritzaren kalitatezko botoak deuseztatuko du. Botazio-sistema printzipio hauetan oinarrituko da: boto zuzena, pertsonala eta ordeztu ezina. Horretaz gain, kideetariko norbaitek hala eskatuz gero Lehendakaritzari, botoa sekretuzkoa izatea bermatu beharko da.

10.– Bileran den edozein kidek gehiengoaren erabakiaren aurkako banakako botoak eman ahal izango ditu, beti ere, bilera amaitu baino lehen iragartzen badu eta Kontseiluaren Idazkariari idatziz helarazten bazaizkio bilera amaitu eta egutegiko bost egunen barruan. Banakako boto horiek gehiengoak hartutako erabakia jasotzen duen testuan jasoko dira.

11.– Batzorde Osoaren, Erakunde-arteko Batzordearen eta batzorde berezien erabakiak bilera-agirian jasoko dira. Bilera agiriak Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen 30/1999 Legeak jasotzen dituen edukiak jasoko ditu eta bertan zehazten den prozedurari jarraituz egikarituko da.

12.– Kulturaren Euskal Kontseiluak Batzorde Osoaren, Erakunde-arteko Batzordearen eta batzorde berezien sareko lana sustatuko du. Informazioko teknologia berriak eta barne mailako komunikazioa erabiliko ditu, bai herritarren parte hartzea sustatzeko baita arlo horretan gizartean dituen eskariak entzuteko ere.

***Bosgarren artikulua.***– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoko kideak izendatzea.

1.– Kultura sailburuak aukeratutako kideen agintealdia lau urtekoa izango da, zeinaren amaieran beste lau

4.– Para que se desarrollen válidamente, la urgencia de tales reuniones deberá ser ratificada como primer punto de la sesión por la mayoría de los miembros del órgano.

5.– Cualquier miembro del Pleno o de la Comisión Interinstitucional del Consejo Vasco de la Cultura podrá proponer a la Presidencia respectiva la inclusión de algún punto en el Orden del Día, siempre que lo haga con un mínimo de 48 horas de antelación y acompañe a su propuesta una sucinta memoria justificativa de la propuesta.

6.– El Pleno quedará válidamente constituido cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros. Si no existiese quórum suficiente, se podrá constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la primera, siendo en este caso suficiente con la presencia de la tercera parte de sus miembros.

7.– La celebración válida de las sesiones requerirá, en todo caso, la presencia de la Presidencia y del Secretario/a, o de las personas que les sustituyan.

8.– Los informes, recomendaciones y demás textos, serán adoptados por mayoría de los miembros del Pleno o, en su caso, de la Comisión Interinstitucional.

9.– En caso de recurrir a votación, será necesario obtener la mayoría simple, dirimiéndose los empates mediante el voto de calidad de la Presidencia. El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando cualquiera de los miembros lo solicite a la Presidencia.

10.– Cualquier miembro presente en la sesión podrá formular votos particulares contra el acuerdo de la mayoría, siempre que lo anuncien antes de levantarse la sesión y se remitan al Secretario/a del Consejo por escrito en un plazo no superior a cinco días naturales, tras la finalización de la sesión. Dichos votos particulares se incorporarán al texto del acuerdo de la mayoría.

11.– Los acuerdos del Pleno, de la Comisión Interinstitucional y de las Comisiones Especiales, constarán en acta, que se formulará con los contenidos y procedimiento fijado en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

12.– El Consejo Vasco de la Cultura fomentará el trabajo en red a nivel de Plenario del Consejo, de la Comisión Interinstitucional y de Comisiones Especiales. Para ello aplicará el uso de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación a nivel interno, así como para promover la participación ciudadana y escuchar las demandas de la sociedad en este ámbito.

***Artículo quinto.***– Nombramiento de los miembros del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– El mandato de los miembros designados por el/la titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vas-

urterako aukeratu ahalko diren. Epe horiek amaitu eta gero, kideek euren eginkizunak betez jarraituko dute, harik eta euren ordezkoak izendatu arte.

2.– Kulturaren Euskal Kontseiluko kideak euren karguaren ondorioz badira kide, modu automatikoan utziko diote kide izateari, izendatzeko izandako baldintza galtzen duten unean bertan.

3.– Heriotzagatik, gaitasun gabeziagatik, uko egiteagatik edo antzeko beste arrazoi batzuengatik sortutako kargu-hutsuneak hilabeteko apean beteko dira, horren berri Kontseiluko Idazkaritzan ematen denetik aurrera, ordezkatutako kideak duen aginte-aldian zehar.

4.– Zuzendaritzako organoak osatzeko edo horietan parte hartzeko pertsonak izendatu eta aukeratzerakoan kontuan izan beharko da gizonen eta emakumeen arteko oreka, betiere kapazitate, gaitasun eta prestakuntza nahikoa badute.

***Seigarren artikulua.***– Kulturaren Euskal Kontseiluko lehendakaria.

1.– Herri Administrazioko Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 23. artikuluan jasotzen dira Kulturaren Euskal Kontseiluko Lehendakaritzak bezalako organoak bete behar dituen eginkizunak, eta horiexek izango ditu:

a) Kulturaren Euskal Kontseiluko ordezkari izatea.

b) Idazkaritzaren bidez bileretarako deia egitea.

c) Bileretarako gai-zerrenda ezartzea.

d) Bilerei hasiera eta amaiera ematea.

f) Eztabaidak gidatzea, partaide bakoitzari hitza emanaz, parte hartzeak moderatuz eta eztabaiden iraupena mugatuz, hala irudituz gero, betiere guztiek parte hartzeko eta bileren jardun ona bermatzeko.

g) Bere botoarekin berdinketak ebaztea.

h) Gai-zerrendan sartu gabeko gaiak aztertzeko proposamena egitea, horretarako arrazoi presazkoak daudela irizten badio.

i) Kulturaren Euskal Kontseiluak izan ditzan harremanetan solaskidea izatea edo nor izango den ebaztea, begiz jotako eginkizunak betetze aldera.

j) Lehendakariari dagozkion gainerako guztiak.

2.– Kulturaren Euskal Kontseiluko lehendakaria gaixotzen bada, bertan ez bada edo lanpostua hutsik badago, bere ordez Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea arituko da, edo Kulturaren Euskal Kontseiluko Batzorde Osoko kideen artetik bere ordezkotza izan dezana.

co tendrá una duración de cuatro años, finalizado el cual podrán ser designados de nuevo para otro mandato. Transcurrido este plazo, éstos continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sustitutos/as.

2.– Aquellos miembros del Consejo Vasco de la Cultura que lo fueran por razón de su cargo, cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados.

3.– Las vacantes que se produzcan por defunción, incapacidad, renuncia o causas similares serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la Secretaría del Consejo y por el tiempo que resta de mandato del miembro sustituido.

4.– En el nombramiento y designación de personas para constituir o formar parte de sus órganos rectores, se tendrá en cuenta una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada.

***Artículo sexto.***– El Presidente o la Presidenta del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– La Presidencia del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura ejercerá las funciones que para tal órgano se contemplan en el artículo 23 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Le corresponde entre otras funciones:

a) Representar al Consejo Vasco de la Cultura.

b) Convocar, a través de la Secretaría, sus sesiones.

c) Fijar el orden día de las sesiones.

d) Abrir y levantar sesiones.

f) Dirigir las deliberaciones, dando la palabra a cada participante, moderando las intervenciones y limitando, en su caso, la duración de las mismas en aras de permitir la participación de todos ellos y de garantizar la buena marcha de las sesiones.

g) Decidir con su voto los empates que se puedan producir.

h) Proponer el tratamiento de asuntos no incluidos en el orden del día cuando existan razones de urgencia que los justifiquen.

i) Ser el interlocutor o determinar quién lo vaya a ser en las relaciones del Consejo Vasco de la Cultura que procedan con cualquier tercero, en aras del cumplimiento de los cometidos asignados.

j) Las demás que le sean inherentes a su condición de Presidente/a.

2.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal el Presidente o la Presidenta del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura será sustituido por el Viceconsejero o la Viceconsejera de Cultura Juventud y Deportes o por quien éste último delegue de entre los miembros del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

*Zazpigarren artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluko idazkaria.

1.– Honako eginkizun hauek dagozkio, besteak beste, Kontseiluko idazkariari:

a) Kontseiluaren bileretara joatea, hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe.

b) Kontseiluko bileren gai-zerrenda eta bilerotan aztertu behar diren gaiei buruzko behar beste agiri prestatu eta bideratzea.

c) Kontseiluaren bileretarako deia egitea, lehendakariak horretarako agindua eman eta gero.

d) Kontseiluko kideek organoari egindako komunikazioak eta, beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo bere ardurapean egon behar duten bestelako idazkiak jasotzea.

e) Bileretako aktak erredaktatu eta onestea.

f) Lehendakariaren aginduz eta bere on iritziarekin, onartutako akten, irizpenen eta erabakien ziurtagiriak ematea.

g) Kulturako Erakunde-arteko Batzordearen eta bere batzorde berezien koordinazio- eta idazkaritza-eginkizunak.

h) Kide anitzeko organoetako idazkariei dagozkien gainerako eginkizunak.

2.– Kulturaren Euskal Kontseiluko idazkaria gaixotzen bada, bertan ez bada edo lanpostua hutsik badago, bere ordez Kultura sailburuak Saileko teknikarien artetik izendatutako pertsona arituko da.

*Zortzigarren artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoaren eginkizunak.

a) Kultura Saila Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak eginiko Kulturaren Euskal Plana doitu eta garatzea, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkeztu aurretik.

b) Kultura arloan modu koordinatuan jardutea bultzatzen duten neurriak proposatzea.

c) Kulturaren babesaz, sormenaz, trebakuntzaz, ekoizpenaz eta zabalkundeaz loturiko gaiak ikertu eta aztertzea.

d) Erakunde-arteko Batzordeak burututako urteko memoria onartzea.

e) Kulturaren Euskal Planaren garapen eta burutzapen mailak ebaluatzea.

f) Legeek eta araudiek Kulturaren Euskal Kontseiluari egotzitako bestelako edozein eginkizun.

*Bederatzigarren artikulua.–* Erakunde-arteko Batzordea.

1.– Honakook osatuko dute Kulturaren Euskal Kontseiluko Erakunde-arteko Batzordea:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, zeina lehendakaria izango baita.

*Artículo séptimo.–* El Secretario o la Secretaria del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– Al Secretario/a del Consejo le corresponden, entre otras, las siguientes funciones:

a) Asistir a las reuniones del Consejo con voz y sin voto.

b) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones del Consejo, así como la documentación necesaria relativa a los asuntos que hayan de tratarse en las mismas.

c) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Consejo por orden de la presidencia.

d) Recibir los actos de comunicación de los miembros del Consejo y, por tanto, las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquier otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

e) Redactar y autorizar las actas de las sesiones.

f) Expedir, por orden de la presidencia y con su visto bueno, certificaciones de las actas, dictámenes y acuerdos aprobados.

g) Las labores de coordinación y secretaría de la Comisión Interinstitucional de la Cultura y de sus Comisiones Especiales.

h) Las demás funciones inherentes a la secretaría de un órgano colegiado.

2.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal la Secretaria o el Secretario del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura será sustituido por la persona que designe la Consejera o el Consejero de Cultura entre el personal técnico del Departamento.

*Artículo octavo.–* Funciones del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

a) Adecuar y desarrollar el Plan Vasco de la Cultura elaborado por la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deporte, con carácter previo a su presentación al Consejo del Gobierno Vasco.

b) Proponer medidas que favorezcan la actuación coordinada en materia de cultura.

c) Estudiar y analizar cuantas cuestiones se refieran a la protección, creación, formación, producción y difusión cultural.

d) Aprobar la memoria anual de actividad elaborada por la Comisión Interinstitucional.

e) Evaluar los niveles de desarrollo y ejecución del Plan Vasco de la Cultura.

f) Cualquier otra función que le sea encomendada por las leyes y reglamentos al Consejo Vasco de la Cultura.

*Artículo noveno.–* La Comisión Interinstitucional.

1.– Formarán parte de la Comisión Interinstitucional del Consejo Vasco de la Cultura:

a) El/la Consejero/a de Cultura del Gobierno Vasco, que ostentará su presidencia.

b) Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

c) Lurralde Historikoetako Foru Aldundietan Kultura arloaren arduradun diren foru-diputatuak edo eurek izendatutako ordezkariak; ordezkariok gutxienez zuzendari kargua izango dute.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetako kultura arloaren arduradun diren zinegotziak.

e) Euskadiko udalen artean ordezkaritzarik adierazgarriena duen udal-elkartearen ordezkaria.

f) Kulturaren Euskal Kontseiluaren idazkaria Erakunde-arteko Batzordearen bileretan idazkari arituko da; horietan eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez botoa emateko.

2.– Batzordea balio osoz eratzeko nahitaezkoa izango da botoa emateko eskubidea duten kideetatik gehiengo erabatekoa bertan egotea, zeinen artean halabeharrez egon beharko duen Erakunde-arteko lehendakaria edo, horren ezean, bere ordezkoa, baita idazkaria ere.

3.– Botoa emateko eskubidea izan eta bileran dauden kideen gehiengo soilaz har ditzake erabakiak Batzordeak. Berdinketak Batzordeko lehendakariak ebatziko ditu.

4.– Bilera bakoitzaren akta egingo da, non jaso beharko baita nortzuk parte hartu duten, bilera halako lekuan eta egunean egiteko egon diren arrazoiak, eztabaidaren gairik garrantzitsuenak, boto-ematearen modua eta emaitzak, eta erabakien edukia.

5.– Aktak idazkariak sinatu behar ditu lehendakariaren oniritziarekin, eta bilera horretan bertan edo hurrengoan aurkeztuko dira onartzeko.

6.– Batzordeko kideek aktan jasota utz ditzakete euren boto partikularrak, bai erabaki guztiari egindakoak, bai erabakiko gai jakin batzuei egindakoak.

7.– Erakunde-arteko Batzordeak baimena eman dezake, bere bileretan -edo horien zati batean- horietan aztertzen diren gaietan espezializatuak diren pertsonak egoteko, zeintzuk hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe jardun ahal izango duten eurei dagozkien gaian edo gaietan.

***Hamargarren artikulua.***– Erakunde-arteko Batzordearen eginkizunak.

a) Kulturaren Euskal Kontseiluko aztergaien izapide ohikoak egitea, Batzorde Osoa bilduta ez dagoenean.

b) Kulturaren Euskal Kontseiluaren jardueren gaineko egutegiak eta lehentasunak proposatzea Batzorde Osoari eta horiek betetzen diren zaintzea.

b) El/la Viceconsejero/a de Cultura, Juventud y Deporte del Gobierno Vasco.

c) Los/as Diputados/as Forales responsables del área de cultura de cada una de las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director/a.

d) Los/as Concejales/as responsables del área de Cultura de las capitales de los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca.

e) Un/a representante de la asociación de municipios más representativa de los Municipios de Euskadi.

f) El/la Secretario/a del Consejo Vasco de la Cultura actuará como tal, con voz y sin voto, en las reuniones de la Comisión Interinstitucional.

2.– La Comisión queda válidamente constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que debe encontrarse necesariamente la Presidenta o el Presidente de la Comisión Interinstitucional o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y la Secretaria o Secretario.

3.– La Comisión adopta sus acuerdos por mayoría simple de los miembros asistentes con derecho a voto. En caso de empate decide el voto de la Presidenta o Presidente de la Comisión.

4.– De cada sesión se levanta acta que contendrá la indicación de las personas que hayan intervenido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos.

5.– Las actas son firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la Presidencia, y se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

6.– Las personas miembros de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares, ya sea a la totalidad del acuerdo, ya sea a cuestiones puntuales del mismo.

7.– La Presidencia de la Comisión Interinstitucional podrá autorizar la presencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

***Artículo décimo.***– Funciones de la Comisión Interinstitucional.

a) La tramitación ordinaria de los asuntos del Consejo Vasco de la Cultura cuando no está reunido el Pleno.

b) Proponer al Pleno los calendarios y prioridades de actuación del Consejo Vasco de la Cultura y hacer el seguimiento de su cumplimiento.

c) Kulturaren Euskal Kontseiluaren jardueren urteko txostena osatzea, Batzorde Osoak onartu dezan.

d) Legeek eta araudiek xedatutako, edo Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoak agindutako bestelako edozein eginkizun.

e) Kulturaren Euskal Planaren garapenean eta aplikazioan partaide diren erakundeen arteko politikak, lerro estrategikoak eta proiektuak koordinatzea.

*Hamaikagarren artikulua.–* Kontseiluaren eta Erakunde-arteko Batzordearen ohiko eta ohiz besteko bilerak.

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluen Batzorde Osoak gutxienez bi bilera egin beharko ditu urtero.

2.– Erakunde-arteko Batzordeak gutxienez ohiko lau bilera egin beharko ditu urtero.

3.– Bai Batzorde Osoak, bai Erakunde-arteko Batzordeak ohiz besteko bilerak egin ditzakete lehendakariaren ekimenez edo kideen bi herenak hala eskatuta.

4.– Erakunde-arteko Batzorde Osoaren bi herenak eskatutako ohiz besteko bileretarako deialdia idatziz egin beharko da eta aztergaien proposamen arrazoitua izan beharko du. Lehendakaritzak, horrelakoetan, ohiz besteko batzarrerako deia egingo du, eskabidea egiten denetik aurrerako hamabost eguneko epearen barruan. Gai-zerrendak halabeharrez jaso beharko ditu eskatutako gaiak, nahiz lehendakariak beste batzuk gehi ditzakeen.

*Hamabigarren artikulua.–* Batzorde bereziak.

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren baitan izaera teknikoa izango duten batzorde-atal bereziak eratu ahal izango dira. Emango zaizkien egitekoen arabera Batzorde Osoak edo Erakunde-arteko Batzordeak lankidetza eta laguntza puntuala edo iraunkorra eskaintzeko baimendu eta izendatu ahal izango dituzte. Batzorde-atal berezien helburua Batzorde Osoari edo Erakunde-arteko Batzordeari laguntzea eta kulturaren alde bereziak aztertzea izango da, horretarako gai jakinen inguruko lanak, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo dituzte bileretan eztabaidatzeko eta onartzeko, bai Batzorde Osoan bai Erakunde-arteko Batzordean.

2.– Batzorde-atal berezien funtzionamendu erregimena Kultura Sailaren titularrak zehaztu ahal izango du, bai balio orokorrez, bai bereziki batzorde bakoitzarena. Azken kasu honetan beti ere batzorde bakoitzaren sortze-erabakian ezarri ahal izan diren jarraibide orokorrei lotutako erregimena izango da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetako kidez eta batzorderako aproposen jotako kultura arloko profesionalez osatu ahal izango dira batzorde bereziak.

c) Elaborar, para su ulterior aprobación por el Pleno, la memoria anual de actividad del Consejo Vasco de la Cultura.

d) Cualquier otra función que le sea encomendada por la Leyes, Reglamentos o por el Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

e) Coordinar las políticas, líneas estratégicas y proyectos entre las instituciones implicadas en el desarrollo y la aplicación del Plan Vasco de la Cultura.

*Artículo decimoprimero.–* Sesiones ordinarias y extraordinarias del Consejo y de la Comisión Interinstitucional.

1.– El Pleno del Consejo Vasco de la Cultura ha de celebrar, al menos, dos sesiones ordinarias al año.

2.– La Comisión Interinstitucional ha de celebrar, al menos, cuatro sesiones ordinarias al año.

3.– Además tanto el Pleno como la Comisión Interinstitucional pueden celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes.

4.– La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias a petición de dos tercios de las y los integrantes del Pleno o de la Comisión Interinstitucional se tiene que realizar por escrito y ha de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

*Artículo decimosegundo.–* Las Comisiones Especiales.

1.– En el seno del Consejo Vasco de la Cultura, podrán constituirse Comisiones Especiales de carácter técnico que, en función de los cometidos que se les asignen, serán autorizadas y designadas por el Pleno o por la Comisión Interinstitucional para la colaboración y apoyo permanente o puntual. Estas Comisiones Especiales tendrán por objeto auxiliar al Pleno o a la Comisión Interinstitucional y abordar aspectos específicos de la cultura y del desarrollo del Plan Vasco de la Cultura mediante la realización de trabajos, estudios, informes y propuestas sobre materias concretas que sirvan de base para su debate y aprobación en el Pleno y en la Comisión Interinstitucional.

2.– El régimen de funcionamiento de las mismas podrá ser fijado con carácter general por el titular del Departamento de Cultura, o con carácter singular, sujeto a las pautas generales que hayan podido ser dictadas, por el acuerdo de creación.

3.– Las Comisiones Especiales podrán integrarse por miembros de las Administraciones Públicas Vascas y por los profesionales del sector de la cultura que se consideren más idóneos a su constitución.

4.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren batzorde bereziek Kontseiluaren Idazkaritzaren laguntza izango dute.

***Hamahirugarren artikulua.***– Kulturaren Euskal Erakundeko eta batzorde berezietako kideek egindako lanaren ordaineko gastu-konpentsazioa.

Kulturaren Euskal Kontseiluaren kide izateagatik ez da ordainsaririk jasoko, baina Kontseilu horretako kideek eta batzorde berezietan parte hartzen dutenek eskubidea izango dute diruz konpentsatzeko, batzordeetako kide anitzeko organoek egindako bileretan parte hartzearren. Konpentsazio hori bateragarria izango da bileretan parte hartzeak edo bertara azaltzeak sortzen dituen joan-etorriko kalteordainekin. Bai batzuk zein besteak eskuratu ahal izateko, zerbitzuko kalteordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan modu orokorrean ezarritako baldintzak, zenbatekoak eta mugak hartuko dira aintzat.

Norbait Kontseiluko kide bada administrazio publikoetan duen lanpostu edo karguaren ondorioz, ezingo du bileretan parte hartzeagatik dirurik eskuratu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Kontseiluaren kideak proposatzea.

Dekretu honetako 5.1 artikuluaren I. paragrafoan aurreikusitako xederako, dekretua indarrean sartu eta hilabeteko epean, Kultura Sailaren titularrak beretzat adierazgarrienak diren Euskal Kulturaren Erakunde eta organismoetara joko du Kulturaren Euskal Kontseiluan parte hartzeko eskainitako kargua onartu eta erakundearen ordez kontseiluaren kide izango denaren izendapenaren berri izateko. Epe horretantxe sailburuak euskal kulturan duten ospeagatik Kontseiluko partaide izatea interesgarri irizten dizkion pertsona fisikoengana joko du izendapena onar dezaten.

***Bigarrena.***– Lankidetza.

Kulturaren Euskal Kontseiluak bultzatu egingo du Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal kulturadun lurraldeetako herri-erakundeekiko eta ekimen pribatuarekiko lankidetza.

***Hirugarrena.***– Kulturaren Euskal Kontseiluak dekretu honetan ezarritako funtzionamendu arauak osa ditzake. Batzorde Berezi guztien funtzionamendu arauak ere ezar ditzake.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorra sortzen duen Dekretua, hura aldatzen duten Dekretua eta, halaber, dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapenak.

4.– Las Comisiones Especiales del Consejo Vasco de la Cultura contarán con el apoyo de la Secretaría del Consejo.

***Artículo décimotercero.***– Compensación por los gastos atribuibles a la labor desempeñada por las y los miembros del Consejo Vasco de la Cultura y de sus Comisiones Especiales.

La pertenencia al Consejo Vasco de la Cultura no dará lugar a retribución alguna, si bien sus miembros, así como quienes participen en sus Comisiones Especiales, tendrán derecho a percibir una compensación económica en concepto de asistencia a las sesiones que desarrollen los órganos colegiados del mismo, que será compatible con las indemnizaciones correspondientes a los desplazamientos que pueda originar su participación o concurrencia a ellas. Tales compensaciones por asistencia, así como las indemnizaciones por desplazamiento se percibirán en las condiciones, cantidades y límites previstos con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

En ningún caso se devengarán asistencias cunado la pertenencia o participación en el Consejo esté determinada por el cargo o puesto de trabajo que se ocupe en las Administraciones públicas.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– Propuesta de miembros del Consejo.

A los efectos previstos en el párrafo l del artículo 5.1 de este Decreto, en el plazo de un mes, contado a partir de la entrada en vigor del mismo, el titular del Departamento de Cultura se dirigirá a aquellas Entidades y Organismos de la Cultura Vasca que considere más representativos, recabando la aceptación del cargo y designación de la persona que en su representación vaya a formar parte del Consejo Vasco de la Cultura. Igualmente en tal plazo, se dirigirá a las personas físicas que por su prestigio en el mundo de la cultura vasca considere de interés su participación en tal órgano, para que éstas procedan a su aceptación.

***Segunda.***– Colaboración.

El Consejo Vasco de la Cultura impulsará la colaboración con las instituciones públicas e iniciativa privada de los territorios de cultura vasca no pertenecientes a la Comunidad Autónoma Vasca.

***Tercera.***– El Consejo Vasco de la Cultura podrá completar sus normas de funcionamiento establecidas en el presente Decreto. Asimismo establecerá las normas de funcionamiento de todas las Comisiones Especiales.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los anteriores Decretos de creación y modificación del Consejo Vasco de la Cultura, así como cuantas otras disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en este Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honetan eta Kulturaren Euskal Kontseiluak onartzen dituen funtzionamendu arau guztietan ezarri gabekoetan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoetarako ezarritakoa aplikatuko da.

*Bigarrena.*– Kultura sailburuari eskumena ematen zaio dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

*Hirugarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko otsailaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En todo lo no dispuesto en el presente Decreto y en las normas de funcionamiento que apruebe el Consejo Vasco de la Cultura será de aplicación lo establecido para los órganos colegiados por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.*– Se faculta a la Consejera de Cultura para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 975

29/2008 DEKRETUA, otsailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua aldatzen duena.

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 14. artikuluan ezartzen duenez, lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak bereiziz. Xedapen hori betetzeko, martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horrek, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu zituen, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autono-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 975

DECRETO 29/2008, de 12 de febrero, de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

Mediante Decreto 226/1997, de 14 de octubre, se aprobaron las relaciones de puestos de trabajo reservados a funcionarios de carrera y a personal laboral. Este Decreto ha sido objeto de diversas modificaciones.

La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, en su artículo 14 establece que las relaciones de puestos de trabajo deberán incluir la totalidad de los existentes que se hallen dotados presupuestariamente, distinguiendo los reservados a funcionarios, a personal laboral fijo y personal eventual. Para dar cumplimiento a dicho precepto se procedió a la publicación del Decreto 44/2007, de 20 de marzo, de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración General de la Comunidad Autónoma, por el que se aprobaron las relaciones de puestos reservados a personal eventual, que sustituyó al Decreto 92/2005, de 19 de abril, declarado nulo por